

PRIBATUTASUNEO ETA KONFIDENTZIALTASUNEO POLITIKA

1. Politikaren laburpena

Politika honen helburua da "Mondragon Assembly, Koop. E."-ko (hemendik aurrera, MA) kideek erakunde baitan sortutako informazioari eman behar dioten tratamendurako baldintzak finkatzea. Horrekin lotutako informazio hori babestu eta sozietatearen helburuak arriskuan jar ditzaketen hirugarren batzuei informazio hori baimenik eman gabe hedatzea ekiditea da horren guztiaren helburua.

Informazio konfidentziala edo isilpekoa izango da honako hau:

- Esplizituki konfidentzialtzat hartutako barneko informazioa eta MAri konfidentzialtasuneko akordioan arabera entregatutako hirugarren batzuen informazioa.
- Langileen, kooperatiben, hornitzaileen eta MArekin lotutako hirugarren pertsona batzuen datuak, horiek MAK edo datuen jabeek modu publikoan hedatu ez dituztenean.
- MAko sail ugarietako jarduerekin lotutako dokumentazioa, sail horiek modu publikoan hedatu ez dutenean.

2. Irismena

Politika hau MAko langile guztientzat da aplikagarria eta sozietateak eta sozietatearen izenean egindako banakako ekintzei eta/edo ekintza bateratuei dagokie.

Politika honek MAK eta bertako langileek maila guztietan ezarritako jarduera, prozesu eta harreman guztiak bilduko ditu. Horiek kontratu, politika, prozedura edo antzeko bitartekoen bidez modu formalean idatzita egon beharko dute, edo ohiko jardunbidearen edo ohituraren bidez aplikagarriak izan beharko dute.

3. Portaerako arau orokorrak

Diskrezio, sekretu eta konfidentzialtasuneko betebeharra

Informazio konfidentziala nahita edo ustekabean hedatzeak kalte larriak eragin ditzake MAren irudian eta langileekin eta hari lotutako hirugarren batzuekin dituen harremanetan. Horregatik, informazioa beharrezko konfidentzialtasun eta sekretu mailarekin erabiltzen dela bermatze aldera, urrats hauek ezarri dira:

- Langile guztiek bete beharko dute MAko batzorde edo talde ugarietan duten partaidetzari edo lanpostuari dagozkion lanak gauzatzeko eskuragarri duten informazio konfidentzialarekin lotutako diskrezio, sekretu eta konfidentzialtasun betebeharra.
- Informazioa helburu legítimoetarako eta modu zintzoan eta arduratsuan erabiliko da, eta Datuak Babesteko Lege Organikoan eta informazioaren konfidentzialtasuna zaintzen duen gainerako araudian xedatutakoa bete beharko da.
- Konfidentzialtasuneko betebeharra bete beharko da MArekin lotutako bezeroekin, kooperatibarekin, hornitzaileekin eta gainerako pertsonekin sinatutako kontratuetan xedatutako moduan.
- Sozietateko/laneko harremana indarrean dagoen bitartean edo hura amaitzen denean, langileek ezingo dute informazio konfidentziala hedatu MAK emandako baimenik gabe.
- Berehala jakinarazi beharko zaio hierarkiari dagokionez goiko mailan dagoenari honako hau:
 - Beste langile batzuek informazio konfidentzialaren inguruan egindako edozein erabilera, hedapen eta/edo argitaratze.

PRIBATUTASUNEO ETA KONFIDENTZIALTASUNEO POLITIKA

- MATik kanpo dagoen hirugarren batek edozein langileren inguruko informazio konfidentziala lortzeko egindako edozein saiakera.

4. Konfidentziasuna bermatzeko ezarritako mekanismoak

- Langile bat MAn sartzen den unean, konfidentziasuneko konpromisoa sinatzea. Dokumentu horretan konfidentziasuna eta sekretua mantentzeko betebeharraren, informazio konfidentzial motaren inguruko informazioa eta abar jasotzen da. Derrigorrezkoa da hori sinatzea eta berekin dakar langileak duen betebeharra onartzea.
- MAk sinatutako kontratuetan konfidentziasuneko klausula gehitzea.
- Beren lana garatzeko garaian informazio pribatura eta konfidentzialera sarbidea duten kontratistek, azpi kontratistek, aholkulariek eta gainerako kanpoko banakako edo erakundeek konfidentziasuneko dokumentua sinatzea.
- Barneko sare informatikoan eskuragarri dagoen informaziora sarrera mugatuak.

Informazioa hedatzea

- Zuzendaritzaren baimena izan beharko du MAko arduradunek aurretik modu publikoan jakinarazi ez duten informazio konfidentzialaren hedapenak.
- Edozein helburutarako MAk sortutako material digitala edo inprimatutakoa zabaltzeko, argazkiak hartzeko edo instalazioetan edozein filmatze lan egiteko, edo MAren jabetzakoak diren materialen publizitatea jasotzen duen beste edozein ekintza aurrera eramateko beharrezkoa izango da Zuzendaritzak emandako baimena.

Politika ez betetzea

Politika horrekin lotutako edozein gorabeheraren edo kontsultaren berri zuzenean eman beharko zaio "Jokabide, erantzukizun sozialeko eta complianceko batzordeko" edozein kideri edo posta helbide honen bidez: gestiónética@mondragon-assembly.com